

Ipurtargiak etxera



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Maiatz ederrari ekin diogu. Konturazterako bero sapa azaleratzen diguten urteko egun luzeenetan gara. Urteko gau motzenak izango dira orduan, baina ikuskizun paregabea eskaintzen dutenak. Ez naiz ari jai txolinenei adarrak ipintzen dizkieten su-festa zalapartatsuez. Isilagoak dira ipurtargiak.

Ipurtargiak kakalardoak dira, eta ehizatu nahi dutena erakartzeko edo bikotea limurtu eta hurbiltzeko gogoa pizteko, ipurtaldeko azalaren azpian oxidazio baten bidez argi kimiko hotza sortzen dute, bioluminiszentzia. Agidanean, 2.000 bat espezie ipurtargi dago munduan, eta bakoitzak bere argi frekuentzia eta piztu-itzali segida erabiltzen ditu. Hezetasuna dagoen tokietan ugariagoak dira, bertan jaki gehiago aurkitzen baitute.

Argi hotzeko dantza bero horren ondoren, emeak lurpean erruten dituen arrautzetatik jaioko dira ipurtargi kumeak. Goseak amorratzen jaio ere. Bel-darrak, harrak, barraskiloak eta bare txikiak edo bare-sitsak dira haren jaki gustukoenak. Taktika aparta du: aurkitzen dituenean jariakin baten bidez paralizatzen eta atxikitzen ditu, bitartean jariakin horrek berak biktima barrutik digerituko du, gero ipurtargitxoak behar duenean lasai ederrean jan dezan.



Ipurtargi harra, barraskilo bat paralizatu eta jaten.

HEINZ ALBERS-CC BY

Ingurune aberatsaren adierazle dira ipurtargiak. Gero eta ipurtargi gutxiago ez al duzu ikusten? Eta gero eta har, barraskilo eta bare gehiago? Zure ingurunea gero eta ekologikoki eskasagoa dela esan nahi du horrek. Ipurtargien atzerakadak arrazoi ugari izan ditzake: intsektiziden erabilera harroa, gaueko argitasuna ugaritzea, hezetasuna urritzea...

Ipurtargiak inguratzeke ekin. Gaueko argiak itzali. Intsektizidarik ez erabili.

Polena ere jaten dutenez, lore aukera zabaldu. Iturri edo putzu edo aska, ura jarri eskuera. Uraren ingurua ahal den eta naturalena eduki, "garbitu" gabe: basa edo lokatza, adar eta egur pusak, belarrak eta landareak bere horretan utzi bertan. Zuhaitz garaiak mantendu.

Japonian "Nazio Altxor" izendatua dute ipurtargia, kultur monumentu handien parekoa, alegia. Tokitan dago gure kultura... ■



endanea
garden

943 64 17 10

www.endanea.com

Jaitzubia 40, Hondarribia

Zapore naturalak

Etxean hazteko, jatorri ekologiko landare ugari eskaintzen dizkizugu. Zure platerak zapore eta kolore naturalez bete ditzazun.

